


KLAUDIA EIZAGIRRE GOGOAN

Mikel Ugalde

Aurtengo Madalen jaietan, hurrengo Gabonetan, ez dugu Klaudia Errenteriako jaialdi eta ospakizunetan ikusiko, ez dugu txistularien edota bertsolarien saioetan gure artean izango. Izan ere, Klaudiak maite zituen euskara eta euskal jaiak. Aukera zuen guztietan hantxe azalduko zen, isilik, apal, otzan, baina, aldi berean, ahalik eta hurbilen bertaratzeko asmoz... Maite zituen jaiak eta maitea genuen guk ere Klaudia. Hona hemen, Ereintzak 2005eko Santa Ageda bezperan kantatutako bertsoan zeinen ongi azaltzen digun Klaudia: "amonatxo zoragarria", "benetako loria", "Santostarren amatxo", "halako dama garbia":



Klaudia Eizagirre Gaspar tabernan. Haren eskuinean Sabin Irastorza, Ereintzako kidea, Klaudiari eskainitako bertsoen egilea.

Gure taldearen atzetikan
ibiltzen dugu Klaudia
amonatxo bat zoragarria
benetako loria;
Talde barruan bere seme bat
abeslari bat handia,
Santostarraren amatxo dugu
halako dama garbia.

Ereintzatarrek "herriko alaba kuttuntzat" hartu eta gero, eskerrik beroenak emango dizkio, taldearen atzetik ikusi ordez, aurrerantzean taldearen erdi-muinean ikusi nahi dutela aitortuz:

Eskerrik asko eman behar da
gu guztion izenean,
zu bezalako gutxi izan da
taldearen historian.
Beti atzean joaten zara
umilki ta ixilian,
aurrerantzean denen erdian
ohorerik haundinian.

Azken Gabon Zaharretako kopletan, Gaspar tabernara iritsi ginenean, hantxe ikusi genuen Klaudia bastoia eskuan zuela, pozik taldearen atzean. Sartu zen tabernara eta baita Kosme Lizaso koplariarengana hurbildu ere. Koplariak, Arzelustarren amona gogoan hartzearekin batera, begira zer nolako koplak eskaini zizkion gure Klaudiari:

Beste amona nire eskubitan badaukat txuri txuria
Honek dakarki Arantzazuko Ama Deunan irudia.

Dios te salbe...

Gukin batean haruntz ta honuntz dabil
amona Klaudia
Larogei eta hamaika urte zerbaite izango dira.

Dios te salbe...

Burua txuri txuria dauka eta txukunak erropak
Beri eskaintzen dizkiogu gaur
gure soinu eta koplak.

Dios te salbe...



Klaudia gozo eta gustura,
Koldo Lizaso koplaria
aldamenean duela.

Larogei eta hamaika batek,
besteak ehun urte onak
Egun gutxitan egongo dira era hontako amonak.
Dios te salbe...

Zuei kalterik ez dizuete egin, urteak asko joatiak
ta zorionez pasa itzazue azken berrogei urtiak

Koplariak, umorearen haritik, beste berrogei urte opa zion zorionean Klaudiari, baina joan zen otsailaren 25ean zendu zitzaigun. Orain ere bertso eta koplak entzuteko aukerarik ez zaio faltako gure amonari.

Klaudia nor genuen ezagutarazten hasita, oso ongi biltzen du Santa Ageda bezperan Ereintzak kantatutako hirugarren bertsoak:

Lizartzan jaio zan gure Klaudia
Donostian esposatu,
berrogei ta hamasei aldera
Alabergara agertu.
Lau seme-alaba hazi ditu,
harro dagota aitortu,
familia ta gure ohiturak
bihotzean gorde ditu.

Bertsoak dioen bezala, Lizartzan jaio zen 1915eko urriaren 15ean. Haur zela eskolara joan ondoren baserriko lanetan aritzen zen ardiak zaintzen. Hamahiru urte zituela Aresora joan zen senitarteko baten etxera. Gerra denbora Bilbon igaro zuen eta amaieran Donostiara itzuli zen nes-kame. Sandalio Santosekin ezkondu zen Lizartzan, 1942ko urriaren 7an. Hasieran Oleta auzoan bizi ziren eta 4 seme-alaba hazi. Alabergara 1956. urtean etorri eta bertan 40 urte pasatxo egin zituen. Koldo Mitxelena plazara aldatu eta gero 1998. urtean hil zitzaion Sandalio senarra. Klaudia berak, berriz, 2007ko otsailaren 25ean, inauterietan, alde egin zigun.

Eskerrik asko, Klaudia, egin diguzun on guztiagatik, zure umore, alaitasun, leiltasun eta jarrerarengatik. Laurogeita hamabi urte hurbil izanagatik, gazte zintugun eta horrela jarraituko duzulakoan gaude. Gozatu ederra hartuko duzu Xenpelar, Txirrita eta Zapiraindarrekin. Ereintzatarrok taldearen erdian nahi zintugun, orain presta ezazu txoko bat guretzat egunen batean zurekin izan gaitzen.

Hona hemen Klaudia dantza saio bat egiteko prest.

